

# BEHAR BIDASOA MEMORIA 2023

behar  bidasoa





# MEMORIA | 2023



**Asamblea General Behar Bidasoa**  
*Behar Bidasoa erakundearen batzar orokorra*



**Jornada en el Instituto Plaiaundi**  
*Jardunaldia Plaiaundi ikastetxean*



**Jornada "Garapenean bidelagun" en Azkoitia**  
*Jardunaldia "Garapenean bidelagun" Azkoitian*



**Jornada "Irun Munduarekin lankidetzan"**  
*Jardunaldia "Irun Munduarekin lankidetzan"*



**Jornada de sensibilización en Azpetia**  
*Sensibilizazio jardunaldia Azpeitian*



**Jornada en el Instituto Tierra Estella**  
*Jardunaldia Tierra Estella ikastetxean*



# BEHAR BIDASOA



Premio Voluntariado  
2009  
*Boluntariotza saria 2009*

## MEMORIA DE ACTIVIDAD

### EJERCICIO 2023

# JARDUEREN MEMORIA

## 2023ko EKITALDIA

**Presidente | Lehendakaria**  
Agustín Ugarte Manterola

**Vicepresidente | Lehendakariordea**  
José Manuel Soto Aranzadi

**Secretaria | Idazkaria**  
Pantxi Galán Azurmendi

**Tesorero | Diruzaina**  
Javier Goñi Echeverría

**Vocales | Kideak**  
Emilio Gutiérrez Tejedor  
Adora Pérez Alkain  
Ana Garcia Veintemillas  
Josetxo Ugarte Egorleta  
Josune Isasa Irigoien

**Delegaciones | Ordezkariek**  
Ana Garcia  
(Donostia)  
M<sup>a</sup> Luisa Beraza  
(Bizkaia)  
Iñaki Lizaso  
(Azpeitia)  
Ramón Unanue  
(Azkoitia)  
Yosune Isasa / Mónica Pérez  
(Apadrinamientos)

## Índice

### Aurkibidea

1.	Reflexiones <i>Hausnarketak</i>	05
2.	Actividades y hechos significativos a nivel societario <i>Erakunde mailako jarduera eta egitate aipagarriak</i>	08
3.	Programa general de actividades <i>Jardueren programa orokorra</i>	10
4.	Polos de Desarrollo <i>Garapen Poloak</i>	18
5.	Resumen económico de nuestra actividad <i>Gure jardueraren ekonomia laburpena</i>	30
6.	Plan de actuación 2024 <i>2024rako jarduera plana</i>	34

## Behar Bidasoa es una Organización No Gubernamental de Cooperación al Desarrollo cuya Misión es:

- Promover, impulsar y apoyar con medios materiales y humanos, proyectos de desarrollo en respuesta a intereses objetivos de los pueblos del Tercer Mundo, esforzándose por no crear dependencia.
- Formar la conciencia ciudadana sobre estos temas mediante el estudio, la divulgación y la formación de las personas y de la opinión pública.
- Colaborar para aumentar y mejorar la cooperación internacional para el desarrollo de los pueblos del Tercer Mundo.

## Principios y valores

- El respeto a la persona humana, a sus convicciones y valores, y a la diversidad cultural de los pueblos.
- Solidaridad y ayuda hacia las poblaciones que más sufren los problemas de desigualdad.
- Derechos humanos y el acceso a una "vida digna" para todas las personas, especialmente en los países empobrecidos.
- La equidad de género, alcanzando la igualdad manteniendo el reconocimiento de las diferencias.
- Restituir a los Países del Sur, como criterio de actuación y línea de pensamiento.

## Behar Bidasoa Garapenean Laguntzeko Gobernu Kanpoko erakundea da eta bere egitekoa zera da:

- Baliabide materialen eta giza baliabideen bitartez garapenerako proiektuak sustatu, bultzatu eta laguntzea, Hirugarren Munduko herrien interes objektiboei erantzuteko, beti ere mendekotasunik ez sortzen ahaleginduz.
- Gai hauen inguruan herritarren kontzientzia prestatzea ikerketa, dibulgazio eta pertsonen eta iritzi publikoaren prestakuntzaren bitartez.
- Nazioarteko kooperazioa areagotu eta hobetzeko laguntzea, Hirugarren Munduko herrien garapenerako

## Printzipioak / Balioak

- Pertsonari errespetua, bere iritzi eta balioei, herrien kultur aniztasunari.
- Elkartasuna eta laguntza desberdintasun arazoak gehien sufrizten duten herrientzat.
- Giza eskubideak eta pertsona guztientzat "bizimodu duina" lortzea, bereziki herrialde pobretuetan.
- Genero berdintasuna, desberdintasunaren aitortza mantenduz berdintasuna lortzeko.
- Hegoaldeko herriei berea ematea, jardueraren irizpide gisa eta pentsamendu-joera bezala.





## 1 | Reflexiones



Un año más, vamos para atrás en justicia, igualdad, derechos y libertades. Como bien dice la Directora Adjunta del Diario Público, 2023 ha sido un año nefasto para el mundo y la humanidad.

En Palestina, sigue el exterminio de un pueblo, ante la mirada impasible de la comunidad internacional. Al terrible atentado cometido por Hamás contra más de un millar de civiles inocentes y el secuestro de más de doscientos, las autoridades judías han respondido con una crueldad inadmisibile. Los bombardeos sobre Gaza y la invasión del territorio de las tropas israelíes, han causado más de veinticinco mil muertos de civiles, muchos de ellos mujeres y niños. Los periodistas son asesinados por docenas; Gaza se ha convertido en algo parecido a un campo de concentración con hombres, mujeres, ancianos y niños, deambulando al son de los fusiles israelíes. La destrucción es casi total: Casas, hospitales, iglesias, mezquitas, escuelas, instituciones, ... han convertido a La Franja en inhabitable, pero, ni paran los bombardeos ni los gazatíes pueden salir de la trampa en que se ha convertido Gaza.

En Sudán, tras varios años de guerra y destrucción, además de las víctimas que éstas provocan, hay siete millones de desplazados, subsistiendo en condiciones muy precarias. Desde hace tiempo sabemos que tanto en Colombia como en Irak hay unos cinco millones de personas obligadas a aban-

## 1 | Hausnarketak

Aurten ere atzeraka goaz justizian, berdintasunean, eskubideetan eta askatasunetan. Diario Públicoko zuzendari albokoak dioenez, 2023 urte txarra izan da munduarentzat eta gizateriarentzat.

Palestinan, aurrera doa herri baten sarraskia, eta nazioarteko komunitatea sorgorarena egiten. Hamásek mila zibil errugabe baino gehiagoren aurka atentatu izugarri bat egin eta berrehun baino gehiago bahitu ondoren, agintari judutarrek krudelkeria onartezinaz erantzun dute. Gazari buruzko bonbardaketek eta Israelgo tropel lurraldea inbaditu ondoren, hogeita bost mila zibil baino gehiago hil dituzte, haietako asko emakumeak eta haurrak. Kazetariak dozenaka hil dituzte; Gaza kontzentrazio-eremu baten antzeko zerbait bihurtu da, gizon, emakume, adineko eta haurrekin, Israelgo fusilen doinura noraezean ibiltzen. Suntsiketa ia erabatekoa da: Etxeak, ospitaleak, elizak, meskitak, eskolak, erakundeak... Gazako Zerrendan ezin da bizi, baina, hala ere, etengabe bonbardatzen segitzen dute, eta gazatarrak ezin dira atera tranpa bat bihurtu den Gaza horretatik.

Sudanen, gerra egiten eta suntsitzen urte batzuk eman ondoren, biktimak eragiteaz gain, zazpi milioi desplazatu daude, eta oso egoera txarrean bizi dira. Aspalditik daki-gu Kolonbian eta Iraken bost milioi pertsona inguruk utzi behar izan dituztela beren etxeak indarkeriaren ondorioz, baina Sudani buruz ia ez da hitz egiten. Ez gara kezkatzen jakiteko zergatik horietako milaka eta milaka prest dauden milaka kilometro egiteko, gerra bortitz eta fantasma batetik ihesi, bizitza Mediterraneon amaitzeko, sufrimendua atzean utzi besterik nahi ez zutenean. Hogeita hamazazpi mila migratzaile, gehienak afrikarrak, Kanarietara iristea lortu dute, eta European bizimodu duin bat lortzea espero dute, kezkaz eta zalantzaz.

**“Urte ilun eta  
txar batetik  
atera gara,  
non gizateriak  
ia duintasun guztia  
galdu duen”**

## “Hemos visto que éste ha sido el año de la desigualdad y, como en la mayoría de las crisis, los países más pobres han sido los más afectados”

donar sus hogares por la violencia, pero de Sudán apenas se habla. No nos preocupamos en conocer porqué muchos miles de ellos están dispuestos a recorrer miles de kilómetros, huyendo de una guerra atroz y fantasma, acabando su vida en el Mediterráneo, cuando solo buscaban dejar atrás el sufrimiento. Treinta y siete mil migrantes, la mayoría africanos, han logrado llegar a Canarias y esperan, con preocupación e incertidumbre, conseguir una vida digna en Europa.

En Ucrania, la guerra parece estancada, tras casi dos años de la invasión rusa. Nadie gana, todos pierden. Se siguen sucediendo los ataques y contraataques de uno y otro bando, con las secuelas de muerte y destrucción que ello conlleva. Se calcula que unos treinta mil soldados de este país han muerto desde que comenzó la invasión, a los que hay que sumar las víctimas civiles. No hay certeza sobre cuántos rusos han corrido la misma suerte.

Hemos salido de un año nefasto en que la humanidad perdió casi toda la dignidad. Mas de setecientos millones de personas viven en la pobreza extrema, según el Banco Mundial; hay casi treinta y cinco millones de refugiados, según Acnur; unas dos mil doscientas personas que intentaban llegar a Europa, han perdido la vida en el Mediterráneo, según Médicos sin Fronteras y más de quinientos en la frontera entre Estados Unidos y México; Más de veintiún mil palestinos han sido asesinados, y el número de muertos aumenta cada día, por causa de los bombardeos israelíes, que no cesan.

Por otra parte, hemos visto que éste ha sido el año de la desigualdad y, como en la mayoría de las crisis, los países más pobres han sido los más afectados. Muchos de ellos, que ya se encontraban en situación de sobreendeudamiento, deben de enfrentarse a una escasez de recursos cada vez mayor, lo que ha complicado más la labor de desarrollo y, si bien la pobreza extrema ha disminuido en los países de ingreso mediano, el



Ukrainan, gerra geldituta dagoela dirudi, Errusiaren inbasioa hasi zenetik ia bi urte pasa direnean. Inork ez du irabazten; denek galtzen dute. Bando baten eta bestearen erasoak eta kontraerasoak gertatzen jarraitzen dute, eta horrek, jakina, heriotza eta suntsiketa dakartza. Kalkulatzen da herri horretako hogeita hamar bat mila soldadu hil direla inbasioa hasi zenetik, eta horiei biktima zibilak gehitu behar zaizkie. Ez dakigu ziur zenbat errusiarrek izan duten zorte bera.

Urte ilun eta txar batetik atera gara, non gizateriak ia duintasun guztia galdu duen. Zazpiehun milioi pertsona baino gehiago bizi dira muturreko pobrezian, Munduko Bankuak dioenez; ia hogeita hamabost milioi errefuxiatu daude, Acnurrek dioenez; Europara iristen saiatu ziren bi mila eta berrehun pertsona inguruk galdu dute bizia Mediterraneon, Mugarik gabeko Medikuek diotenez, eta bostehun baino gehiago hil dira Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugan. Hogeita bat mila palestinar baino gehiago hil dituzte, eta hildakoen kopuruak gora egiten du egunero, Israelen bonbardaketa etengabeen ondorioz.

Bestalde, ikusi dugu desberdintasunaren urtea ere izan dela, eta, krisi gehienetan bezala, herrialde pobreenak izan dira kaltetuenak. Horietako askok, lehendik ere gainzortetze-egoeran zeudenek, gero eta baliabide-urritasun handiagoari egin behar diote aurre, eta horrek gehiago zaildu du garapen-lana, eta, diru-sarrera ertaineko herrialdeetan muturreko pobrezia gutxitu den arren, arazoa pandemiaren aurretik baino handiagoa da herrialde pobreenetan eta hauskortasunak, gatazkek edo indarkeriak jota daudenetan. Herrialde horietan pobrezia jarraitzen duenez, munduko beste garapen-helburu garrantzitsu batzuk lortzea askoz zailagoa da.



**“Y los que aún creemos  
que un mundo mejor  
es posible, no cejaremos  
en nuestro empeño,  
en nuestra lucha pacífica,  
en aportar nuestro  
grano de arena”**

problema sigue siendo mayor que antes de la pandemia en los países más pobres y afectados por fragilidad, conflictos o violencia. La persistencia de la pobreza en estos países hace que otros objetivos de desarrollo mundiales clave sean mucho más difíciles de lograr.

En relación con la deuda externa, ha ido en aumento los riesgos relacionados con la misma, especialmente para los países más pobres del mundo, que se vieron presionados por pagos del servicio de la deuda más elevados, lo que llevó a que se desviaran recursos para este fin y se desatendieran necesidades críticas como la alimentación, salud, la educación y el medio ambiente.

No obstante, en el **Informe sobre el desarrollo mundial relativo a la migración, del Banco Mundial**, se concluye que contar con políticas migratorias mejoradas puede ayudar a impulsar la prosperidad en todos los países. Según esta publicación, las poblaciones de todo el mundo están envejeciendo a un ritmo sin precedentes, lo que hace que muchos países dependan cada vez más de la migración para hacer realidad su potencial de crecimiento a largo plazo, lo que puede resultar una oportunidad para encontrar mejores formas de lograr que la migración beneficie a las personas y las sociedades.

Y los que aún creemos que un mundo mejor es posible, que la justicia y la solidaridad conseguirán abrirse camino pese a la injusticia, la desigualdad y el egoísmo que nos rodea, no cejaremos en nuestro empeño, en nuestra lucha pacífica, en aportar nuestro grano de arena y contribuir a mejorar la educación y condiciones de vida de los más desfavorecidos, exigiendo que la actividad económica y las decisiones políticas que se tomen, estén siempre y en primer lugar al servicio de las personas, y no al revés.



Kanpo-zorrari dagokionez, areagotu egin dira harekin lotutako arriskuak, bereziki munduko herrialde pobreenentzat, zorraren zerbitzua gehiago ordaindu beharra izan baitzuten. Horren ondorioz, baliabideak desbideratu ziren helburu horretarako, eta ez ziren aintzat hartu oinarritzko beharrak, hala nola elikadura, osasuna, hezkuntza eta ingurumena.

Hala ere, **Munduko Bankuaren migrazioaren inguruko mundu-garapenari buruzko txostenean** ondorioztatzen da migrazio-politika hobeago batek lagun dezakeela herrialde guztietan oparotasuna bultzatzen. Argitalpen horren arabera, mundu osoko populazioak aurrekaririk gabeko erritmoan ari dira zahartzen. Hori dela eta, herrialde asko gero eta gehiago daude migrazioaren mende, epe luzeko hazkunde-ahalmena errealitate bihurtzeko. Hori aukera bat izan daiteke migrazioak pertsonen eta gizartearen mesede egiteko modu hobeak aurkitzeko.

Eta mundu hobe bat posible dela uste dugunok, inguruan injustizia, desberdintasuna eta norberekeria nagusi diren arren justiziak eta elkartasunak bidea irekiko dutela uste dugunok, ahaleginak egiten jarraituko dugu, borroka baketsuan, gure harri-koskorra jartzeko behartsuenen hezkuntza eta bizi-baldintzak hobe daitezela. Eta exijitzen jarraituko dugu jarduera ekonomikoa eta hartzen diren erabaki politikoak beti eta aurretik pertsonen zerbitzura egon daitezela, eta ez alderantziz.

## 2 | Actividades y hechos significativos a nivel societario

Estamos viviendo tiempos difíciles y, por lo tanto, las necesidades van en aumento. Behar Bidasoa, desde su pequeñez, sigue adelante llevando a cabo proyectos de desarrollo en los Países llamados del Tercer Mundo, con el objetivo de tratar de mejorar la vida de las personas más vulnerables, ya que no podemos mirar solamente los problemas que nos afectan más directamente porque están próximos, sino que debemos de dirigir nuestra mirada hacia los que están más alejados, pero con una problemática realmente difícil.

Entendemos que debemos de seguir apostando por combatir la extrema pobreza, la desnutrición, el analfabetismo y el poco reconocimiento de la mujer en el ámbito familiar y social.

Como cada año, presentamos nuestra Memoria de Actividades, donde quedan reflejadas las distintas acciones realizadas en el transcurso del año en las diversas zonas donde actuamos, siguiendo las directrices reflejadas en nuestros principios y valores, teniendo como criterio de actuación y línea de pensamiento: Restituir a los Países del Sur.

En algunos casos, son acciones sencillas, pero significan mucho para las personas beneficiarias de las mismas.

Este trabajo que presentamos a la ciudadanía no se habría podido realizar sin la colaboración desinteresada de voluntarios/as, así como de las aportaciones dinerarias de las Instituciones, Fundaciones y particulares. **Nuestro agradecimiento por su confianza y su apoyo continuado a nuestra labor.**

En cumplimiento de la normativa en vigor, hemos llevado a cabo las siguientes actuaciones:

- Celebración de la Junta General para la aprobación de las Cuentas Anuales, así como del Plan de Actuación y Presupuesto previsto para el año 2024, de acuerdo con los Estatutos de la Asociación. Igualmente, se procedió a la elección de la Junta Directiva.
- Inscripción de las Cuentas Anuales en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.
- Declaraciones fiscales en la Hacienda Foral de Gipuzkoa.
- Auditoría de Cuentas por parte de una Empresa Externa: Behar Bidasoa no está obligada a auditar sus cuentas anuales, pero entendemos que es preciso realizarla para poder ofrecer una mayor transparencia ante las Entidades Públicas de las que recibimos subvenciones, así como ante las/los particulares que nos hacen donaciones. No podemos olvi-

## 2 | Erakundearen jarduera eta egitate aipagarriak

Garai zailak bizi ditugu, eta, beraz, gero eta behar gehiago dago. Behar Bidasoak, bere txikitasunean, garapen-proiektuak egiten jarraitzen du Hirugarren Mundua esaten zaien herrialdeetan, pertsona ahulenen bizitza hobetzen saiatzeko. Izan ere, ezin ditugu zuzenean eragiten diguten arazoak bakarrik ikusi, hurbil daudelako; aitzitik, urrunago dauden baina arazo benetan zailak dituzten herrialdeetara bideratu behar dugu gure begirada.

Uste dugu jarraitu beharra daukagula muturreko pobrezia, desnutrizioari, analfabetismoari eta emakumeak familian eta gizartean duen aintzatespen urriari aurre egiten.

Urtero bezala, gure Jarduera Memoria aurkezten dugu. Bertan, jarduten dugun eremuetan urte osoan egindako ekintzak islatzen dira. Betiere gure printzipio eta balioetan islatutako jarraibideei jarraituz jarduten dugu, eta jarduteko irizpidea eta pentsamendu-ildo bat dugu: Hegoaldeko Herrialdeak suspertu eta hobetzea.

Kasu batzuetan, ekintza sinpleak dira, baina oso esanguratsuak haien onura jasotzen dutenentzat.

Herritarrei aurkezten diegun lan hau ezin izango zen egin boluntarioen laguntza eskuzabalik gabe, ezta erakundeen, fundazioen eta partikularren diru-ekarpenik gabe ere. **Gure esker ona, erakutsitako konfiantzagatik eta gure lanean etengabe laguntzeagatik.**

Indarrean dagoen araudia betez, honako jarduera hauek egin ditugu:

- Batzar Nagusia egitea, urteko kontuak, 2024. urterako aurreikusitako jarduera-plana eta aurrekontua onartzeko, elkartearen estatutuen arabera. Era berean, Zuzendaritza Batzordea hautatu zen.
- Urteko kontuak Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatu ditugu.
- Zerga-aitorpenak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu ditugu.
- Kontuak ikuskatu ditugu, kanpoko enpresa baten bidez. Behar Bidasoa ez dago behartuta urteko kontuak auditatzera, baina uste dugu hori egin beharra dagoela dirulaguntzak jasotzen ditugun erakunde publikoei eta dohaintzak egiten dizkiguten partikularrei gardentasun handiagoa eskaintzeko. Ezin dugu ahaztu gure helburuak betetzeko eman zaizkigun baliabideak kudeatzen ditugu-





dar que gestionamos unos recursos que se nos han confiado para cumplir nuestros objetivos, y ello conlleva ser rigurosos y ofrecer la mayor información posible.

GAYCA Auditores realiza esta labor y lo hace de forma gratuita y como forma de colaboración con Behar Bidasoa.

La Junta Directiva de Behar Bidasoa ha llevado a cabo reuniones periódicas para poder ir analizando la ejecución de los distintos proyectos programados, hacer un seguimiento pormenorizado de los mismos, y tratar de resolver los problemas que se han ido presentando. También se analizan las nuevas propuestas presentadas por las contrapartes de los distintos Países para ver la posibilidad de llevarlas a cabo, sin olvidarnos de peticiones de ayudas más puntuales que tratan de solucionar situaciones urgentes.

Hemos participado en las reuniones y actos convocados por la Coordinadora de ONGs de Euskadi, tanto a nivel provincial como de Comunidad Autónoma, dada nuestra pertenencia a la misma, por medio de nuestra representante en dicha Coordinadora, Ane García y realizando esa labor de participación y seguimiento tan necesaria para tener conocimiento de la problemática de las Asociaciones que forman parte de la citada Coordinadora.

Behar Bidasoa pertenece a la “Red Internacional por la Sostenibilidad Ambiental en la Lucha Contra la Pobreza”, cuyo objetivo es sensibilizar a la ciudadanía sobre la importancia de la sostenibilidad ambiental para el desarrollo humano sostenible tanto en los Países del Norte como en los del Sur.

Igualmente, seguimos colaborando con el Consejo Asesor de Bienestar Social y la Comisión de trabajo de Cooperación y Tolerancia del Ayuntamiento de Irun.

El coro Atzokoak ha donado a nuestra Asociación la recaudación del concierto navideño (1.076€), como viene siendo habitual desde hace muchos años.

Desde Behar Bidasoa entendemos que las acciones realizadas han sido positivas y suponen un paso más en la lucha contra la extrema pobreza y exclusión social. Nacimos con ese objetivo y continuamos con nuestra labor, paso a paso, pero sin pausa. Volvemos a reiterar nuestro agradecimiento por la confianza que todos los/las colaboradoras vienen depositando año tras año en nuestra labor.



la, eta horrek eskatzen du zorrotzak izatea eta ahalik eta informazio gehien ematea.

GAYCA Auditores enpresa arduratzen da lan horretaz, eta doan egiten du, Behar Bidasoari laguntzeko.

Behar Bidasoako Zuzendaritza Batzordea aldizka bilatu da, programatutako proiektuen gauzatzea aztertzeko, haien jarraipen zehatza egiteko eta sortu diren arazoak konpontzen saiatzeko. Era berean, jarduten dugun herrialdeetakoek aurkeztutako proposamen berriak ere aztertzen dira, ea gauzatzeko aukerarik dagoen ikusteko. Bestalde, laguntza puntualagoak ere eskatzen dituzte larrialdi-egoerei aurre egiteko.

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko kide garen aldetik, Gipuzkoa zein Euskadi mailan, hark antolatutako bilera eta ekitaldietan parte hartu dugu, Koordinakundean dugun ordezkariaren (Ane García) bidez. Horrela, parte-hartze eta jarraipen-lana egiten dugu, oso beharrezkoa baita Koordinadora horretan dauden elkarteek zein arazo izaten dituzten jakiteko.

Behar Bidasoa “Pobreziaren aurkako Borrokako Ingurumen Jasangarritasunaren aldeko Nazioarteko Sare”ko partaide da. Sarearen helburua da herritarrak sentsibilizatzea jakin dezaten zer garrantzitsua den ingurumen-jasangarritasuna gizakiaren garapen jasangarrirako, bai Iparraldeko herrialdeetan bai Hegoaldekoetan.

Era berean, Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluarekin eta Lankidetzeta eta Tolerantziako Lan Batzordearekin elkarlanean jarraitzen dugu.

Duela urte askotatik ohikoa denez, Atzokoak abesbatzak guri eman digu eguberrietako kontzertuan bildutako dirua (1.076€),

Behar Bidasoan uste dugu egindako ekintzak positiboak izan direla eta beste urrats bat direla muturreko pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokan. Helburu horrekin sortu ginen, eta gure lanarekin jarraitzen dugu, urratsez urrats, baina etenik gabe. Berriz ere eskerrak ematen ditugu kolaboratzaile guztiek urtez urte gure lanean jartzen duten konfiantzagatik.

## 3 | Programa general de actividades

### 3.1 ENVÍO DE AYUDA HUMANITARIA

Behar Bidasoa, por distintas razones ya expuestas en anteriores Memorias, ha dejado de enviar contenedores, pero colabora con otra organización (Mamore) en esta tarea. Este año se ha remitido un contenedor a la RD Congo.

Por otra parte, se siguen realizando remesas de paquetes a Rwanda, con diverso material. En total han sido enviados 28 paquetes. Nuestra intención es continuar llevando a cabo estos pequeños envíos, ya que se cuenta con donaciones en especie.

### 3.2 PUESTA EN MARCHA DE PROYECTOS DE DESARROLLO

Behar Bidasoa, desde sus orígenes, ha entendido la cooperación como un desarrollo integral humano. Es decir, como la necesidad de hacer una labor continuada en el tiempo y en distintos ámbitos, centrándose en la persona. De ahí, la importancia de esta acción encaminada no solamente al crecimiento económico, sino como fortalecimiento de las capacidades e interacciones entre las personas.

Este año se ha podido recuperar la normalidad, en cuanto se refiere a la situación sanitaria (Covid19) y nos ha permitido desarrollar los proyectos programados sin complicaciones añadidas.

Seguimos atendiendo, dentro de nuestras posibilidades, las propuestas que nos presentan las contrapartes (figura muy importante para el buen fin de las actuaciones), ya que ellas son las que mejor conocen las necesidades existentes, las posibles soluciones y, en definitiva, las que van a llevar a cabo la ejecución de los proyectos.

En la actualidad se viene actuando en los siguientes Polos: Polo de Desarrollo de Kabuga (Rwanda) Villarrica (Paraguay) y Pereira (Colombia).

Cada uno de estos Polos tiene su propio apartado dentro de esta Memoria, y en él se recogen las distintas acciones realizadas.

Como complemento, también se llevan a cabo actuaciones dirigidas a colectivos muy vulnerables, de carácter más asistencial, y que tratan de ayudar a resolver situaciones com-

## 3 | Jarduera programa orokorra



### 3.1. BIDLITAKO LAGUNTZA HUMANITARIOA

Behar Bidasoak, aurreko memorietan azaldutako hainbat arrazoiengatik, edukiontzia bidaltzeari utzi dio, baina beste erakunde batekin (Mamore) kolaboratzen du lan horretan. Aurten, Kongoko EDra bidali da edukiontzi bat.

Bestalde, Ruandara hainbat materialez betetako pakete-sailak bidaltzen jarraitzen dugu. Guztira, 28 pakete bidali ditugu. Gure asmoa da bidalketa txiki horiek egiten jarraitzea, da, espezetan egindako dohaintzak izaten baititugu.

### 3.2. MARTXAN JARRITAKO GARAPEN PROIEKTUAK

Behar Bidasoak hasieratik ulertu du giza garapen integral bat dela lankidetzat. Hau da, denboran eta hainbat esparrutan lan jarraitua egiteko beharra, pertsonarengan arreta jarritz. Horregatik da garrantzitsua ekintza hori, zeren, hazkuntza ekonomikorako izateaz gain, pertsonen arteko interakzioak eta gaitasunak sendotzeko ere bai baita.

Aurten normaltasuna berreskuratu ahal izan da, osasun egoerari dagokionez (Covid19), eta programatutako proiektuak zailtasun gehigarririk gabe garatu ahal izan ditugu.

Gure ahalmenen barruan, kontraparteek aurkezten dizkiguten proposamenak aztertzen jarraitzen dugu (figura hori oso garrantzitsua da jarduketak ondo burutzeko), beraiek



plicadas. En algunos casos, llevamos ya varios años atendiendo estas necesidades, y lo hacemos porque la problemática sigue ahí, y la respuesta que se recibe de las contrapartes es positiva, es decir, las justificaciones de la financiación enviada llegan en tiempo y forma.

En este apartado se encuentran: Bagamoyo (Tanzania), Kamatongo (Ruanda), Nyatike-Kadem (Kenia), Ngandanjika (R.D.Congo), San Luis-Pinar del Rio (Cuba), Nfereji (Tanzania) y Ijebu-Obe (Nigeria).

### 3.2.1 BAGAMOYO (TANZANIA)

Kamelot es un proyecto para albergar a niños/as huérfanos o abandonados que dirige la misionera Isabel Segarra.

La idea central es crear una gran familia donde los niños se sienten queridos y respetados, sintiendo el apoyo del conjunto de los miembros que la componen.

Estos niños/as, además de vivir en un ambiente familiar, reciben toda la atención que necesitan: alimentación, sanidad, escolarización, etc. y en la última fase del proyecto, fase de inserción en la sociedad e independencia, se les ayuda para dar este importante paso, pero manteniendo siempre un punto de referencia que es la “casa de familia” a la que están vinculados.

La mejora en el bienestar de la infancia es un objetivo al que no podemos ni debemos renunciar. Kamelot cumple ese objetivo, de ahí, nuestro apoyo continuado a su desarrollo.

Se les ha enviado una subvención de 7.000€.

### 3.2.2 KAMATONGO (RWANDA)

Seguimos ayudando a las personas encarceladas en Kamatongo(Ruanda) a través de las misioneras Natividad y Josefa. El efectivo que les enviamos, ellas lo transforman en

baitakite ondoen zer behar dauden eta nola konpon daitezkeen; izan ere, azken batean, beraiek gauzatu behar dituzte proiektuak.

Gaur egun, honako Polo hauetan jarduten dugu: Kabugako (Ruanda), Villarricako (Paraguai) eta Pereirako (Kolonia) garapen-poloetan jarduten dugu.

Polo horietako bakoitzak bere atala du memoria honetan, eta bertan biltzen dira egindako ekintzak.

Osagarri gisa, kolektibo oso ahulei zuzendutako jarduerak ere egiten dira; horiek laguntza-izaera handiagoa dute, eta egoera korapilatsuak konpontzen laguntzea da helburua. Kasu batzuetan, urte batzuk daramatzagu behar horiei erantzuten, eta arazoa hor dagoelako egiten dugu, eta kontraparteetatik erantzun positiboa jasotzen dugu, hau da, bidalitako finantzaketaren justifikazioak garaiz eta behar bezala iristen dira.

Atal horretan daude honako hauek: Bagamoyo (Tanzania), Kamatongo (Ruanda), Nyatike-Kadem (Kenia), Ngandanjika (Kongoko ED), San Luis-Pinar del Rio (Kuba), Nfereji (Tanzania) eta Ijebu-Obe (Nigeria).

### 3.2.1 BAGAMOYO (TANZANIA)

Kamelot proiektua umezurtzak edo ume abandonatuak hartzeko da, eta Isabel Segarra misiolariak zuzentzen du.

Ideia nagusia familia handi bat sortzea da, haurrak maitatuak eta errespetatuak senti daitezen, familia osatzen duten kideen laguntza sentituz.

Haur horiek, familia-giroan bizitzeaz gain, behar duten arreta guztia jasotzen dute: elikadura, osasuna, eskolatzeta, etab. Eta proiektuaren azken fasean, gizarteratze- eta independentzia-fasean, urrats garrantzitsu hori ematen laguntzen zaie, baina beti erreferentzia-puntu bat mantenduz, beren “familia-etxea” baita.

Ez genioke uko egin beharko eta ezin diogu uko egin haurren ongizatea hobetzeko helburuari. Kamelotek helburu hori betetzen du, eta, horregatik, etengabe ari gara garatzen laguntzen

7.000 euroko dirulaguntza bat bidali zaie.

### 3.2.2 KAMATONGO (RWANDA)

Kamatongo (Ruanda) kartzelaratuak laguntzen jarraitzen dugu Natividad eta Josefa misiolarien bidez. Bidaltzen diegun dirua preso ahulentzako sendagai eta elikagaitarako erabiltzen dute. Haiek egiten duten lana oso garrantzitsua da, laguntza handia baita askatasunik gabe eta baldintza latzetan bizi diren pertsonentzat.



medicinas y alimentos para las/los presos más vulnerables. La tarea que ellas realizan es de suma importancia, ya que significa una gran ayuda para las personas que se ven privadas de libertad y viviendo en condiciones infrahumanas.

Desde Behar Bidasoa entendemos que, de alguna manera, esta colaboración nuestra desde la distancia, les hace sentirse acompañados en ese duro proceso que les ha tocado vivir, les da moral para seguir luchando y poder mantener la esperanza en un futuro mejor.

Se ha hecho una aportación de 12.000€.

### 3.2.3 NYATIKE-KADEM (KENYA)

También este año hemos apoyado a la casa de acogida de niños/as gestionada por las Hnas. Pasionistas. El objetivo de este proyecto es la educación y atención a la infancia, infancia que carece prácticamente de todo, y a la que es preciso favorecer.

Se trata de una ayuda de gran importancia en un contexto donde la falta de medios y oportunidades dificultan que las niñas/os puedan desarrollar plenamente sus capacidades.

Contribuir al desarrollo personal y social de estos niños/as es, también, contribuir a su bienestar.

Se les ha enviado una subvención de 5.000€.

### 3.2.4 NGANDANJIKA (R.D. CONGO)

Nuestra colaboración con este proyecto no la hacemos directamente sino a través de la Fundación Signos Solidarios que dirige M<sup>a</sup> Cruz Andueza (anterior responsable de Jopoi en Paraguay) y que actualmente se encuentra en Zaragoza.

Esta actuación está enfocada a desarrollar un emprendimiento de cría de animales domésticos y huertas, de forma que, se pueda conseguir alimentar a las niñas/os que son atendidos en el centro y conseguir la autosuficiencia del mismo.

Es un proyecto a largo plazo que se irá consolidando paso a paso. El año pasado fue el inicio, y este año se han llevado a cabo las siguientes acciones:

- Construcción de una cisterna con capacidad de 5.000 litros para recoger el agua de la lluvia.
- Adquisición de un convertidor de 10.000 w. para las placas solares y optimizar el funcionamiento de las mismas.
- Mejorar la cocina del centro para poder cocinar en condiciones más saludables.
- Se ha continuado con la cría de animales domésticos y cultivos en las huertas.

Behar Bidasoa ha aportado 7.000 €.



Behar Bidasoan uste dugu, nolabait ere gure arteko lankidetza horrek lagundu egiten diela bizitzea egokitu zaien prozesu gogor horretan, adorea ematen diela borrokan jarraitzeko eta etorkizun hobe baten itxaropenari eusteko.

12.000€ euroko ekarpena egin dugu.

### 3.2.3 NYATIKE-KADEM (KENYA)

Aurten ere lagundu diogu Ahizpa Pasiotarrek kudeatzen duten haurren abegi-etxeari. Proiektu horren helburua da haurrei arreta eta hezkuntza eskaintzea; izan ere, ia ezer ez daukate eta lagundu egin behar zaie.

Garrantzi handiko laguntza da, baliabiderik eta aukerarik ez izateak zaildu egiten baitu neska-mutilek beren gaitasunak erabatean ditzaten.

Haur horien garapen pertsonal eta sozialean laguntzea, haien ongizatean laguntzea ere bada.

5.000 euroko dirulaguntza bat bidali zaie.

### 3.2.4 NGANDANJIKA (KONGOKO ED)

Proiektu honetan ez dugu zuzenean laguntzen, Zeinu Solidarioak Fundazioaren bidez baizik. Fundazio hori M. Cruz Anduezak zuzentzen du (Paraguaiko Jopoi aurreko arduraduna). Gaur egun Zaragozan dago.



## 3.2.5 SAN LUIS-PINAR DEL RIO (CUBA)

Behar Bidasoa tiene 78 niños/as apadrinados en San Luis-Pinar del Rio, siendo la contraparte las Hnas. Pasionistas.

Como consecuencia del ciclón que azotó esta zona de Cuba, las familias de estos niños/as apadrinados, se vieron afectados muy directamente. Sus casas(chozas) quedaron muy dañadas; sin techos, puertas y ventanas y no disponían de medios económicos para su reparación.

A través, de nuestra contraparte recibimos la información del estado en que se encontraban estas familias, y se tomó la decisión de contribuir a paliar la difícil situación creada.

Se ha hecho una aportación de 5.000 €.

## 3.2.6 MFEREJI (TANZANIA)

Mfereji es un poblado masái de Tanzania, donde se está intentando crear pequeñas infraestructuras que faciliten la vida de las personas que viven allí (escuela, recogida de agua de lluvia, letrinas, comedor escolar etc.). Enjipai es la asociación que está llevando a cabo esta labor desde el año 2012. Se ha entablado relación con ella a través de un miembro de Behar Bidasoa.

Nos presentaron su plan de actuación previsto, es decir, los proyectos que necesitaban abordar (Instalación de placas solares para la escuela, construcción de dispensario de farmacia, alfabetización de las mujeres masái, etc.) para los que precisaban financiación.

Se les ha enviado una subvención por importe de 7.000€.

## 3.2.7 IJEBU-OBE(NIGERIA)

El pasado año, se llevó a cabo la instalación de paneles solares en la casa de acogida que gestiona nuestra contraparte las Hnas. Pasionistas. Carecían de iluminación ya que el generador que les suministraba se había deteriorado y no disponían de medios para su sustitución.

En esta ocasión se ha completado la instalación para dotar de energía a las aulas de las/los niños y de esta forma puedan utilizar el material informático del que disponen fruto de una donación.

Desde Behar Bidasoa entendemos que es necesario que estos niños/adolescentes puedan disponer de las nuevas herramientas que faciliten su aprendizaje y evitar que su carencia signifique una nueva brecha de discriminación.

Se ha hecho una aportación de 5.000 €.



Etxeko animaliak hazteko eta baratzeak lantzeko ekimen bat garatzera bideratuta dago jarduera hau, zentroan zaintzen diren haurrak elikatzeko eta bertan behar dutena lortzeko aukera izateko.

Epe luzerako proiektu bat denez gero, urratsez urrats finkatuz joango da. Iaz hasi ziren, eta aurren, ekintza hauek egin dituzte bertan:

- Euri-urak jasotzeko 5.000 litroko edukiera duen zisterna bat eraiki dute.
- Eguzki-plaketarako 10.000 W-ko bihurtailua erosi dute, haien funtzionamendua optimizatzeko.
- Zentroko sukaldea hobetu dute, baldintza osasungarriagotzeko.
- Etxeko animaliak hazten eta baratzea laboratzen jarraitu dute.

Behar Bidasoak 7.000 euroko ekarpena egin du.

## 3.2.5 SAN LUIS-PINAR DEL RIO (CUBA)

Behar Bidasoak 78 haur ditu babesean hartuta San Luis-Pinar del Rio, eta Ahizpa Pasiotarrak dira kontrapartea.

Kubako eremu hori astindu zuen zikloiak zuzenean eragin zien haur babesgabe horien familiei. Haien etxeak (txabolak) oso kaltetuta geratu ziren; estalkirik, aterik eta leihoarik gabe, eta konpontzeko baliabide ekonomikorik gabe.



### 3.3 APADRINAMIENTOS

Para nuestra Asociación, la educación es un pilar fundamental para el desarrollo. Por esa razón, el programa de apadrinamientos ocupa un lugar importante en el conjunto de las actividades que se realizan en los distintos Países donde se actúa.

Por otra parte, la educación significa una protección de las niñas/os frente a la pobreza y la exclusión. También significa, en muchas ocasiones, eludir el trabajo infantil, los matrimonios y embarazos precoces, es decir, no poner en peligro su integridad.

Gracias a las aportaciones de los padrinos/madrinas, estos niños/as tienen la oportunidad de disfrutar de uno de sus derechos fundamentales: la educación que, a su vez, abre la puerta a la posibilidad de una vida mejor.

En la actualidad hay 483 niños/as apadrinados y distribuidos en los siguientes Países:

Rwanda	22
Tanzania	129
Bolivia	8
Brasil	15
Colombia	80
Congo	55
Cuba	78
Ecuador	7
Filipinas:	8
Kenya	12
Nigeria	24
Paraguay	45

Gure kontrapartearen bidez, familia horien egoerari buruzko informazioa jaso genuen, eta erabaki genuen han sortutako egoera zaila arintzen laguntzea.

5.000 euroko ekarpena egin dugu.

#### 3.2.6 MFEREJI (TANZANIA)

Mfereji Tanzaniako masai herrialde bat da. Bertan, azpiegitura txiki batzuk sortzen saiatzen ari dira, bertakoen bizitza errazteko asmoz (eskola, euri-ura biltzea, komunak, eskolako jangela...), Enjipai elkarte ari da lan hori egiten 2012az geroztik. Harekin harremanetan jarri gara, Behar Bidasoako kide baten bidez.

Aurreikusia zuten jarduera-plan bat aurkeztu ziguten, hau da, zer proiektu landu behar ziren (eskolarako eguzki-plakak jartzea, farmaziako kontsultategia eraikitzea, masai emakumeak alfabetatzea...) eta, horretarako, finantziarioa behar zuten.

7.000 euroko dirulaguntza bat bidali zaie.

#### 3.2.7 IJEBU-OBE (NIGERIA)

Iaz, eguzki-panelak jarri ziren Ahizpa Pasiotarrek kudeatzen duten abegi-etxean. Ez zuten argirik, ematen zien sorgailua hondatuta baitzegoen eta ez baitzuten ordeztuko baliabiderik.

Oraingo honetan, instalazioa osatu da haurren ikasgeletara energia eramateko, eta, hala, dohaintza baten ondorioz daukaten material informatikoa erabil dezakete.

Behar Bidasoan uste dugu beharrezkoa dela ume/nerabe horiek beren ikasketak errazteko tresna berriak edukitzea, dituzten gabeziengatik beste diskriminazio-arraila bat izan ez dadin.

5.000 euroko ekarpena egin dugu.

### 3.3. UMEAK BABESEAN HARTZEA

Gure elkartearen iritziz, hezkuntza funtsezko zutabe bat da garapenerako. Horregatik, umeak babesean hartzeko programak leku garrantzitsua du jarduten dugun herrialdeetan egiten diren jarduera guztietan.

Bestalde, hezkuntza babes bat da haurrentzat, pobreziaren eta bazterketaren aurrean. Askotan, haurren lana, ezkontzak eta haurdunaldi goiztiarrak saihestea ere esan nahi du, hau da, haurren integritatea arriskuan ez jartzea.

Aitabitxien eta amabitxien ekarpenei esker, haur horiek beren oinarritzko eskubideetako batez gozatzeko aukera dute: hezkuntza, aldi berean bizitza hobea izateko aukera ematen duena.





En la mayoría de los casos, la situación de las niñas/os que son atendidos es realmente difícil, y esa realidad ocasiona serias dificultades tanto en el rendimiento escolar como en su comportamiento. Por lo tanto, reiteramos nuestro agradecimiento a todas las madrinas/padrinos que hacen posible seguir desarrollando este proyecto.

### 3.4 BECAS

Seguimos apostando fuerte por la capacitación de las/los jóvenes, y este proyecto de becas es una muestra de nuestra implicación, implicación que no es nueva, sino que viene desde los inicios de Behar Bidasoa.

Si buscamos un desarrollo integral de la población, es necesario ir elevando el nivel educativo de la comunidad, para ir construyendo ciudadanía con pensamiento crítico, para que puedan participar plenamente en la construcción de la sociedad en la que viven.

A través de este proyecto, las/los jóvenes de Kabuga tienen la oportunidad de acceder a estudios superiores y, en consecuencia, aspirar a un futuro mejor, no solamente para ellos/as sino también para la comunidad. No podemos olvidar que el conocimiento trae consigo oportunidades; es la lucha contra las desigualdades existentes y promueve el empoderamiento de la mujer, aspecto este último muy importante, dado el contexto en el que vive la mujer africana.

Este año han sido 62 los/las alumnas becadas, y se ha contado con las aportaciones de la Fundación Mamoré (12.500), Zaisa (4.500 €) y el Instituto Tierra Estella (2.000€).

Gaur egun, 483 haur daude babesean hartuta, honela banatuta:

Ruanda	22
Tanzania	129
Bolivia	8
Brasil	15
Kolonia	80
Kongo	55
Kuba	78
Ekuador	7
Filipinak	8
Kenya	12
Nigeria	24
Paraguai	45

Kasu gehienetan, arreta jasotzen duten nesken egoera benetan zaila da, eta errealitate horrek zailtasun handiak sortzen ditu, bai eskolako errendimenduan bai portaeran. Beraz, berriro ere eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu hau garatzen jarraitzeko aukera ematen duten amabitxi eta aitabitxi guztiei.

### 3.4. BEKAK

Gazteen trebakuntzaren aldeko apustu sendoa egiten jarraitzen dugu, eta beka-proiektu hau gure inplikazioaren erakusgarri da; ez da berria, Behar Bidasoaren hasieratik dator.

Populazioaren garapen integralaren bila bagabiltza, beharrezkoa da komunitatearen hezkuntza-maila handitzea, pentsamendu kritikoa duten herritarrak eraikiz joateko, bizi diren gizartearen eraikuntzan bete-betean parte hartu ahal izan dezaten.

Proiektu honen bidez, Kabugako gazteek goi-mailako ikasketak egiteko aukera dute, eta, ondorioz, etorkizun hobea lortzeko aukera, ez bakarrik haientzat, baita komunitatearentzat ere. Ezin dugu ahaztu ezagutzak aukerak ekartzen dituela. Gaur egungo desberdintasunen aurkako borroka da, eta emakumearen ahalduntzea sustatzen du. Azken alderdi hori oso garrantzitsua da, Afrikako emakumea bizi den testuingurua kontuan hartuta.

Aurten, 62 ikasle izan dira bekadunak, eta Mamoré Fundazioaren (12.500 €), Zaisaren (4.500 €) eta Tierra Estella Institutuaren (2.000 €) ekarpenak jaso dira.

### 3.5. SENTSIBILIZAZIOA

Ezinbestekoa da gizartea sentibilizatzeko lanak egiten jarraitzea, Hirugarren Munduko milioika pertsonak bizi duten egoera zaila ezagutarazteko eta elkartasuna pizteko funtsezko elementua delako.



## 3.5 SENSIBILIZACIÓN

Es necesario, más bien imprescindible seguir llevando a cabo labores de sensibilización social para dar a conocer la difícil situación en la que viven millones de personas del Tercer Mundo y porque es un elemento esencial para despertar la solidaridad.

Ser solidario significa implicarse en la transformación de un modelo de sociedad injusto y no vivir de espaldas a las necesidades de los más desprotegidos.

Behar Bidasoa quiere y tiene que hacer llegar su pequeña voz, transmitir las necesidades de los pueblos donde se actúa, las acciones que se realizan y lo mucho que todavía queda por hacer. Hoy por hoy, todavía nos necesitan para seguir luchando por una vida digna.

Hay una frase que expresa muy bien la idea que debemos de transmitir:

“Una vida que no se vive para servir, no sirve para vivir”

¿Como se lleva a cabo esta labor? Básicamente enviando información puntual de los distintos proyectos ejecutados, así como de los resultados obtenidos y de los nuevos retos que se nos plantean desde nuestras contrapartes en los Países de destino.

Por otra parte, y como complemento, también se realizan actividades en contacto directo con la ciudadanía, bien organizadas por nuestra Asociación o participando en las preparadas por otras Entidades/Ayuntamientos.

El día 18 de enero se participó en el programa radiofónico “Huella Eko-Solidaria de Cope Euskadi- Gipuzkoa Kutxa Solidarioa.

El día 23 de febrero llevamos a cabo un encuentro con los/las alumnas y profesores del Centro I.E.S. Tierra Estella, en Estella, donde tuvimos la oportunidad de dar a conocer los proyectos que se vienen realizando, especialmente el de Becas, ya que dicho Centro colabora en la ejecución del mismo mediante una aportación dineraria.

Solidarioa izateak esan nahi du bidegabeko gizarte-eredu baten aldaketan parte hartzea eta babesgabeen beharrei bizkar emanda ez bizitzea.

Behar Bidasoa bere ahots txikia helarazi nahi du eta helarazi behar du, eta transmititu ere bai jarduten duen herriek zer behar dituzten, zer ekintza egiten diren eta oraindik zer dagoen egiteko. Gaur egun, oraindik ere behar gaituzte bizitza duin baten alde borrokatzen jarraitzeko.

Bada esaldi bat oso ondo adierazten duena zer ideia transmititu behar dugun:

“Zerbitzatzeko bizitzen ez den bizitza bat, ez du bizitzeko balio”

Nola egiten da lan hori? Funtsean, informazio puntuala bidaliz: zer proiektu gauzatu diren, zer emaitza izan diren eta xede diren herrialdeetan zer erronka berri planteatzen dizkiguten gure kontraparteek.

Bestalde, eta osagarri gisa, herritarrekin harreman zuzena edukiz ere egiten dira jarduera batzuk, bai gure elkarteak antolatuta, bai beste erakunde/udal batzuek prestatutako jardueretan parte hartuta.

Urtarrilaren 18an, “Huella Eko-Solidaria de Cope Euskadi - Gipuzkoa Kutxa Solidarioa” irratsaioan parte hartu genuen.

Otsailaren 23an, topaketa bat egin genuen Lizarrako Lizarralde BHIko ikasle eta irakasleekin, eta gauzatzen ari diren proiektuen berri emateko aukera izan genuen, bereziki beken inguruan, ikastetxe horrek diru-ekarpen bat egiten baitu proiektu hori gauzatze aldera.

Apirilaren 27an, Irungo Udalaren Balioen eta Giza Eskubideen ordezkariak “Elkartasunaren balioa” lelopean antolatutako III. Foru Topaketan parte hartu genuen, eta baita Cadena Ser-eko irratsaio batean ere.

Gainera, urrian, Irungo Udalak antolatutako «Irun Munduarekin Lankidetzan» izeneko elkartearen eta GKEen azokan ere parte hartu genuen.

Azaroaren 28an, Plaiaundi BHIrekin sinatutako lankidetzahitzarmenari erantzuteko, hitzaldi bat egin zen ikastetxe horretako ikasleekin.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eskutik, “Euskadiko Gazteak Lankidetzan” programaren 30. edizioan parte hartu dugu, Kolonbiako Pereiran dugun proiektuak aurten ere lankidetzan diharduten gazteen laguntza izan dezan.

Behar Bidasoa “Garapenean Bidelagun 2023” jardunaldi solidarioetan egon da, Azkoitian, eta baita Azpeitian uztailean antolatutako jardunaldietan ere.

Bestalde, Euskadiko GKEen Koordinakundeak prestatzen dituen ekintzetan aktiboki parte hartu dugu, Ane García gure ordezkariaren bitartez.



El día 27 de abril, se participó en el III Foro Encuentro organizado por la Delegación de Valores y Derechos Humanos del Ayto. de Irun, bajo el lema “El valor de la solidaridad”, así como en el programa radiofónico de la cadena SER.

También se tomó parte en la feria de asociaciones y ONDs, bajo el título Irun Munduarekin Lankidetzan, organizada por el Ayuntamiento de Irun, en el mes de Octubre.

